

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.ehbildu.eus -
20003 Donostia

OSAKIDETZAK DONOSTIAN DITUEN LEHEN ARRETAKO ZERBITZUETAKO MURRIZKETAK DIRELA ETA KONTROL MOZIOA

Olaia Duarte Lopezek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2022ko azaroaren 14an Pertsonen Zerbitzuen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Urriaren 10ean, *El Diario Vasco*k Amarako eta Beraungo anbulategietan emango diren ordutegi murrizketak iragarri zituen. Dirudienez, orain arte arratsaldeko 20:00ak arte atentzioa bermatzen zuten anbulategi horiek 17:00etan itxiko dituzte ateak, bertara gerturatzen ziren pazienteak larrialdietara bideratuz. Aurten, ez da neurri hau hartzen den lehenengo aldia, 2021eko gabonetan eta 2022ko udan ere 150 anbulategitan aplikatu zen ordutegi murrizketa hau EAEn.

Udal talde honek uztaileko plenoan salatu zituen, mozio arrunt baten bidez, hiriko osasun publikoaren sarearen inguruko murrizketak eta gabeziak (Intxaurrendoko zentroan pediatria plaza bateko murrizketa eta hitzorduen atzerapena; osasun mentaleko zerbitzu publikoen saturazioa hirian, Gaztedi elkartearen salaketaren bidez; Amara Berri auzo elkarteko kideek salatutako auzoko anbulategian pediatria euskaldun baten falta; Txomin Eneko osasun zentroaren gabezia, Bidebieta eta Altzako espezialitate eta larrialdi zerbitzu falta eta abar.) eta Udal Gobernuako kideek errealitate hau ezeztatu zuten. Hiru hilabete geroago, prentsaren bidez iragartzen zaigu murrizketa gehiago datozela eta hiriko lehen mailako arreta-sarea gero eta kolapsatuago egongo dela.

Azaroko batzordeetan gai honen inguruan interpelatua izaterakoan, Udal Gobernuako ordezkariak erantzun digu ezin dugula diskurtso alarmistetan erori eta Osakidetza bizi duen egoera pandemiaren zein profesional faltaren ondorioa dela eta alkateak konfiantza duela Osasun Sailarengan.

Hain zuzen ere, deigarria da oso, gaur egungo egoeran, 2023rako Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuak proposatu diren honetan, Osakidetzaren egoera hobetu ordez, aurrekontu osoarekiko Osasuneko aurrekontuak %32,5eko pisua izatea, iaz 33,4koa zuenean. Beraz, nahiz eta aurrekontuetan, iazkoarekin alderatuta, diru kantitatea igo, pisua galdu egiten du eta 2008tik aurrekontuen eboluzioa aztertzen badugu, ikus daiteke urtez urte 2 punturen bueltan ibili dela Osasun aurrekontuen pisua, aurrekontu guztiarekiko %31,85 eta % 34 artean, urteotan guztian (pisu handiena 2013an izan zuen). Hortaz, mantentze hutsa da 2023ko Osasun Sailaren aurrekontuen apustua. Errealitate horrek ez dio erantzuten inondik ere Donostiak eta donostiarrek, osasun publikoari dagokionez, duten beharrari.

Beraz, Udal Gobernuaren konfiantzak ez die soluzioa emango egunero ezinean lan egiten duten profesionalai, lehen arretan hitzordua lortu ezinik larrialdietara joan behar duten pazienteei eta zita bat hartzeko itxaron epeei. Beharrezkoa da Udal Gobernuak eskura

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

lJentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.ehbildu.eus -
20003 Donostia

dituen bitarteko guztiak erabiltzea, hiriko anbulategietan ematen ari diren murrizketak eta atentzio arazoak ekiditeko.

Hortaz, azaldutako egoera kontuan hartuta, behean sinatzen duen zinegotziak honako MOZIO hau aurkezten du:

KONTROL MOZIOA

1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari premiazko bilera dei dezala Osasun Sailarekin, hiriko anbulategien murrizketen eta gabezien inguruan hitz egiteko eta haietan kalitatezko osasun arreta bermatzeko beharrezkoak diren neurri zuzentzaileak aztertzeko.

2.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari Osasun Sailari eska diezaiola Donostian ordutegi murrizketa jasan duten anbulategietan hartutako erabakia atzera botatzeko eta zerbitzua lehengoratzeko.

Donostian, 2022ko azaroaren 17an

Olaia Duarte López
EH Bildu udal taldeko zinegotzia